

Elikakatearen kontrol ofizialari buruzko berriak

Elikakatearen Kontrol Ofizialei buruzko Araudi berriak, orain dela gutxi onartutakoak, Europako egungo sistema indartuko du, nekazaritzako elikagaien kate osoan pertsonenganako, animalienenganako eta landareenganako arriskua saihesteko, ezabatzeko edo txikitzeko arauak ezarrita.

Estatu kide bakoitzeko agintaritzak eskudunek arauok behar bezala aplikatzen direla bermatuko dute.

Araudi berri horren helburuak dira, batetik, kontrolen sistema sinplifikatzea eta bateratzea, bestetik, gardentasuna eta eraginkortasuna handitzea eta, azkenik, legegintza-sistema malguago egitea.

Hurrengo hiru urteetarako, **34 egintza eskuordetu eta 51 betearazpen-egintza gauzatu beharko dira**, eta koordinazioa funtsezkoa izango da horretan, lan hori guztia egin eta ezarritako epeak bete ahal izateko.

^ Zer onura dakartza araudi hori ezartzeak?

Araudi berria ezartzeak honako alderdi hauei eragingo die:

- **Enpresak eta agintaritzak:** administrazio-karga murriztuko zaie, eta prozesu eraginkorragoak eta kontrol zorrotzagoak izango dituzte.
- **Kontsumitzaileak:** elikagaiak kaltegabeak direla bermatzeko kontrolak modu gardenagoan egingo dira, eta landareen osasunarekin, animalien osasun eta ongizatearekin eta iruzurraren prebentzioarekin lotutako segurtasun-estandarrak areagotuko dira.

v Zein dira araudiaren berritasun nagusiak?

v Zertarako egiten dira kontrol ofizialak?

v Nola eragiten die hirugarren herrialdeetatik inportaturiko jakiei?

v Kontrol ofizialak aplikatuko zaizkie online erositako elikagaiei?

v Zer berritasun dakartza araudi berriak animalien ongizateari dagokionez?

v Nola lantzen du elikadura-iruzurraren gaia araudi berri honek?

v Europako herrialdeen arteko lankidetzak sendotu egingo da?

v Noiztik aurrera aplikatuko dira arau berri hauek?

Enforcement of rules along the agri-food chain in the EU (http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-17-611_es.htm)